

IRITZIA

» zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskulitzak plazaratzen ditu. Tarte bikoitzera idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta **BERRIAK** mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izar-abizenak eta herria adierazita: **BERRIA**, Martin Ugalde Kultur Parkea, 30012 Andoain. iritzia@berria.info

ez nazazu lagundu, hil egingo nauzu eta

Harri eta zur geratu gara Nafarroan ale gehien egiten dituen egunkariaren euskarari eta Gobernuari buruzko berriak irakurritari: «Nafarroako Gobernuak euskarari ematen dizkion diru-laguntzak».

Gutun hau sinatu dugun guztiak Nafarroako Erriberako eta Igantzi eta Arantzako euskara irakasleak gara. Ez gara kazetariak, beraz. Baina lantegi duin horretan muturrik sartu gabe, iruditzen zaigu berria, berririk izatez gerotan, honakoa dela: «Nafarroako Gobernuak nabarmen murriztu ditu eskola-orduz kanpoko euskarazko jardueretako diru-laguntzak».

Hori dela-eta, aurten arte jaso izan ditugun diru-laguntzak izugarri jaitsi dizkigutela sumatu dugu (iaz baino %57 gutxiago jaso dugu aurten).

Informa dezatela baino ez dugu eskatzen. Esan dezatela beste behin ere Gobernuaren politikaren helburua zein den: euskararentzako laguntza guztiak murriztea. Gobernuak badaki euskara (*lingua navarrorum*) diru-laguntzarik gabe hiltzera eta desagertzera zigortua dagoela. Ezin da esan inor laguntzen ari

garenik hura ito nahian baldin bagabiltza.

Imanol Txoperena
Euskara irakaslea

Larresoro

Bazen behin *Zeruko Argia*-n Larresoro izenpean idazten zuen idazle bat. Eta, astero astero egoten nintzen postariak noiz ekarriko *Zeruko Argia*, hartu eta, berehala, Larresororen artikulua irakurtzeko. *Larresoro* izenak, garai hartan, Iparralde mitikoa zekaridan gogora eta, aldi berean, batetik, halako jakinduri zabal eta, bestetik, halako maitasuna eta xamurtasuna erakusten zuen euskara eta Euskal Herriarekiko non erabat txunditurik baininduen.

Noizbait ikasi nuen Larresoro Txillardegik zela eta nahigabe edo frustrazio bat izan nuen, eta ez Txillardegik gustatzen ez zitzaidalako, baizik, eta ene iduripean Euskal Herriko bi gizon handi zirenak, ustekabea, batean urtzen zirelako, eta guk Txillardegik eta Larresoro asko behar baikeenituen aurtera egitekotan.

Benetan, nor zen ere ez nekien Larresoro maitatu nuen. Eta esanen nuke orduan ezagutu nuela *ETA*ren fundatzaileetako eta erbestean bizi zen Jose Luis Alvarez Enparantza.

Gehienetan garai-garaiko modetz kanpo ibili izan den gizona izan da Txillardegik-La-

rresor eta, orain, bere iritzia, jarrera eta bideak ikusi eta, esan dezakegu, beti asmatu izan duela, hau da, besteok izan garena galduta eta askotan zabuka ibili garenak. Txillardegik: Iraultzailea izan behar zenean, erreformistatzat salatua; komunismoa erpinean eta bera antistalinista porrokatua; politika gauza guzien gainetik egon behar eta bera *puto culturalista*; euskara eta gure txokokerien gaitzesien gainetik ez dakit nolako internazionalismoa eta kosmopolitismoa eta gure Txillardegik *un fundamentalista de la lengua*. Gehienetan, Txillardegik modaz kanpo eta, hala ere, urte batzuk pasa, eta Txillardegik eta bere ildoak zuzen bere bideekatik. Eta jende abertzaleak arrazoi eman behar Jose Luis azkenean, oinarriko gauzetan batez ere, berak baitzuen bide zuzena erakutsi. Orain bertan ere, nahi baduzue, ez dago indartsuekin baina bai bide zuzenean. Horrela izan da Txillardegiren bizia, beti modaz kanpoko gizona baina benetako maisua. Bide erakusle.

1999. urtean argitaratu zuten Jon Juaristi, abertzaleen *adixkide* finak, bere *Sacra Nêmesis* liburua. Abertzaletasunari egurra emateko egina. Eta nor uste duzue dela bertan gaitzesiena? Sabino Arana? Argala, agian? Txomin, behar bada? Ez, denetan gaitzesiena gure Alvarez Enparantza Jose Luis

da. Gerra ondorengo abertzaletasun berrian ideologo gaitzesgarria eta xehatu beharreakoa. Guk ikusi nahi ez edo ikusten jakin ez duguna, etsajak ederki ikusi du.

Zein ote Txillardegiren sekretua, azkenean, berak duela arrozoi aitortu diezaiozun? Nik ez dakit nola asmatu izan duen bizitzak ezarri dizkion (dizkigun) bide gurutzetean: Jakinduria? Sena?... Badu zerbait Txillardegik eta ez da sorginkeria, ez horixe. Bertute asko aitortu izan zaizkio azken aldiko omenaldietan. Ez dakit inork aipatu duenik, baina ni beti harritu nauena honako hau da: bere hurbilpen izan diren edo garen ezjakinon iritzitxoak errespetu osoz aditu izan dituela. Entzun eta aditu.

Bukatzeke, inork jakitekoan, zergatik asmatu duen hainbatetan, Jonek, bere emateak, inork baino hobeki jakinen du. Eta zenbat mespretxu merke eta zenbat irain sufritu behar izan dituzten ere bai. Askoran, behar bada, ez dute bizitza atsegina izan, baina bai oparora. Bizitza osoa lanean, etxeko eta kanpoko ikerketan, karriketako agerraldietan, beti Euskal Herriaren alde. Bide zuzenetik jo eta ke. Bai, bizitza bete-betea.

Auniz urtez eta besarkada bat bioi.

Jon Aleman
Basaburua

» larrepiti

‘Mekaguen txotx!’



AMETS ARZALLUS

—Petrolio upelaren prezioak goia jo behar omen dik...

—Bai, laster duk gasolina xanpainaren pare! Berriz ere izango diagu patrikan zuloa.

Hala ari ziren lehenagoan bi jakitsua urte beltzaz hizketan sagardotegi batean. Etorri dieseleokoak izaki luze zihokien kontua, eta azkenerako sagardotegi nagusia ere bildu zitzairen, kontua eskuetan zekarrela. —Hi, hira sagardoak ez ote dik balio autoari edaten emateko? —xaxatu zuen batek.

—Asmatu beharkeo diagu horrelakoren bat, espekulazioa hain duk... —nagusiak.

Eta sukaldera sartu zen atzera, paper-txo mahaiari utzita: 30 euro bakoitzarena, biena 60. Sagardogileak beti izan dira abilak ziria sartzen.

—Esan diku upelaren prezioak goia joko zuela...

—Uste baino azkarrago jo dik. Hobe izango diagu autoari gasolina botatzea.

Lekutan gelditu dira Txirritaren marrazki bizidunetako sagardotegiak. Herri xehearen bereto leku, abarka urratuen eta alkandora zimurren pasarella. Urrea kolorez aldatu da, eta txotxetik edatea aberaskiloen pribilegioa da ia-ia. Kilodun aberatsena. Gero ez harritu gazteak bunkeretan sartuta ikustean. Jendea sagardotegiz sagardotegi baitabil petrolio upelaren prezioa mardarikatu, eta laurrehun metro eskasera duten etxera autoan itzuliz. Bakoitza berean. Zorte pixka batekin, Audi batean: «Pobre-ak izango gaituk, baina miserableak ez!».

Guk, bunkerretik, bertsok aterako dizkiegu aberas miserable horiei. Eta bertsok aterako dizkiegu sagardotegi moderno hauet. Zuek nahi baduzue, kantatu errepika: «Kupela, kupela, sagardoen hotela...».

» galde-eskeak



XABIER EUZKITZE
KAZETARI ETA
BERTSOLARIA

Nola ikusten duzu zuk Juan Martinez Irujo pilotaria. Ez ote gara azkarregi goratzen ari?

Jone Telletxea

Arrunt gorabeheratsua da Irujo. Egun okerra duenetan hori pentsatzeko bidea ematen du: «Hau al da izar handi hori?». Gutxien uste duzunean ahoa bete hotz uzten zaitu, ordea; beste inork egin ez ditzakeenak eskaintzen dizkizu. Bere gorabehera eta guzti, gauza bar argi dago: buruz burukoa behin hartu du parte, eta txapelidun da. Binaka, bigarren txapelketa du aurtengo, eta bigarren finala jokatuko du igandean. Horrek erakusten du Irujo ez duela inork goratu beharrik.

» www.berria.info

EAEko Berdintasunerako Legeak eragina izango al du emakumeek berdintasuna lortzeko?

BAI	% 26
EZ	% 74

Emakumeok erabakiak hartzen diren lekuetan egon beharra daukagu, benetako aldaketa nahi badugu. Bide horretan urratsak egin behar dira. Horretarako sortu diren tresnak efektiboki martxan jartzea premiazkoa da, aitzakiarik gabe. Lege horrek ezin du gogokizun zerrrenda bat bakarrik izan. **Ⓛ Xixime**

Gizartea aldatu egin da azken urte hauetan, baina emakumeen aurrerapauso bakoitza borroka askoren ondorio izango da. Gobernu kanpoko erakundeak dira benetako aldaketa indarrak. Arlo guztietan borrokatu behar dugu emakumeok, eta gizonen laguntza lortzen badugu hobeto izango da. **Ⓛ Egaska**

» hitz beste

Saskia bete porru

ANJEL LERTXUNDI

Hauteskundeak datozela esaten ari zaizkigu, baina ez datoz. Oraindik ez, behintzat. Tartean, opor labur batzuk daude, eta uholdeen kontrako dike baten lana beteko ahal du egun horien hurbilak! Azken egunotako egunkariak hauteskundeak iragartzen ari badira ere (egunkariak oso abilak dira jendearen benetako interesak ezkatuzten), datorkiguna udaberria da. Eta daukaguna, eguzki-gosea. Zorionak parentesia labur baten itxura halako bat izaten baitu beti, har dezagun bada atsedean, igandeko *El País* egunkarian ikusten genuen argazkiko Atutxa jaun baratzaik bezala —soroan zut, bejondeizula zuri!—. Saski bat zeraman eskuan, oporren bueltan etorriko zaigunaren abisua emanez: saski barruan, azalorre trinko eta porru lerdunen menestra.

Har dezagun, bai, atsedean, azalorre eta porru gisako metaforez gainezka dator eta oporren ondorengo saski-nahaskia.